

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Behin betiko onartzea 2021eko aurrekontua, plantilla eta zinegotzien dedikazio partzialak

Ez denez erreklamaziorik aurkeztu 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorraren hasierako onepenen erabakiaren aurka, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakunde Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko onartu da, aurrekontua betearazteko arauarekin eta langileen plantillarekin batera, kapituluko laburpen honekin:

DIRU SARRERAK	EUROAK
1. Zuzeneko zergak	1.072.454,36
2. Zeharkako zergak	65.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	368.547,00
4. Transferentzia arruntak	1.261.276,48
5. Ondare sarrerak	465.365,83
6. Inbertsio errealak besterentzea	144.000,00
7. Kapital-transferentziak	18.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.394.643,67</b>

GASTUAK	EUROAK
1. Langile gastuak	601.083,72
2. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	1.687.976,30
4. Transferentzia arruntak	619.583,65
6. Inbertsio errealak	200.000,00
7. Kapital-trasferentziak	286.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.394.643,67</b>

#### KORPORAZIOKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA ESLEIPENAK

- Alkate-lehendakaria: lanaldi partziala, ehuneko 73koa, eta urteko ordainsaria 36.241,67 euro.
- 2. alkateorde Inma Elorza Bergara: ehuneko 50eko dedikazio partziala, berdintasun eta kultura arloko arduradun gisa, 15.180,00 euroko urteko ordainsariarekin.
- Itziar Mendia Celaa zinegotzia; ehuneko 20ko dedikazio partziala, hezkuntza eta gazteria arloko arduraduna den aldetik, eta urteko 6.194,81 euroko ordainsaria.
- Indemnizazioak: zinegotziei, osoko bilkuretara joateagatik: 50 euro, bestelako organo kolegiatuak, batzordeak, bilerak edo bere karguak dakartzan jardueren dedikazioa: 41,86 euro (hiru ordura arte) eta 66,54 euro hiru ordutik gora.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, aipatutako erabakiaren aurka. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2021eko martxoaren 30a

*Alkate-lehendakaria*

**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**